



## GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

### PROPOSAMENA: PASAIAN ARRAUNA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU ETA EMATEKO ARAUDIA

#### 1. ARTIKULUA. HELBURUA:

Deialdi honen helburua hau da: Pasaiako irabazi asmorik gabeko arraun-elkarteentzako diru-laguntzak eskatu eta emateko baldintzak arautzea; elkarte horiek Pasaiako udalerrian Gazteria eta Kirol Departamentuak ezarritako sustapen-helburuekin bat datozen programa eta jarduerak egin ditzaten. Araudi honen bidez ez dira inolaz ere arraunarekin lotutako ohiko jarduerak diruz lagunduko.

Diru-laguntzak eskatuko dira, atal hauetan zehaztutako jardueretarako:

##### 1.- 1. ATALA:

Pasaiako badian estropadak antolatzea.

##### 2.- 2. ATALA:

- Pasaiako 12 urte bitarteko haurrak dauzkaten ikastetxeekin (Pasaia-Lezo Lizeoa, La Anunciata, Lezo Herri Eskola eta IES Bidebieta) edo irabazi asmorik gabeko elkarteekin elkarlanean egindako programak, zehatzak nahiz aldizkakoak: arrauna sustatzeko helburuarekin antolatutako hitzaldiak, tailerrak, eta ur-jarduerak, eskola orduetan edo eskola orduz kanpo.

- Eskola kirola programaren barruan, arrauna sustatzeko erakustaldi edo jarduerak (haurrak eta kadeteak bakarrik). Inolaz ere ez dira antolatuko Eskola Kirolari buruzko Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten arrauna sustatzeko jarduerak.

Diru-laguntza hauetatik kanpo geratzen dira, Pasaiako herrietako jaietan ospatu, eta jai batzordeen diru-laguntza duten kirol ekintzak.

##### 3.- 3. ATALA:

- Gazteria eta Kirol Departamentuarekin elkarlanean arrauna sustatzeko gauzatzen diren programak, 12 eta 16 urte bitarteko eskola-umeentzako udako kirol kanpainan. Programa horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol eta Kanpo Ekintza Sailaren deialdietan ezarritako baldintzek arautzen dituzte.

Kanpainarako diru-laguntza irizpideak hauek dira:

\*Arrauna: 24 € plaza bakoitzeko:



Plaza-kopurua, gehienez: 120

Halaber, kontuan hartzen da irakasle/ikasle ratioa (1:5) eta ezindu kopurua; azken horiek plaza bakoitzeko 3 euro gehiagoko diru-laguntza dute.

#### 4.- 4. ATALA:

- 2. atalean adierazitako arrauna sustatzeko jardueretarako material berezia erostea. Deialdi eta elkarte bakoitzeko 1.000 euroko diru-laguntza emango da materiala erosteko. Ez da diruz lagunduko arraun elkarteek ohiko jardueretarako erosten duten materiala.

### 2. ARTIKULUA. AURREKONTU AURREIKUSPENA

Diru-laguntza hauek emateko baldintza hauek bete behar dira: aurrez Pasaia Udalak aurrekontuko partida bat bideratu behar du helburu horretarako, eta ebazpena emateko garaian nahikoa kreditu egon behar du.

### 3. ARTIKULUA. IRIZPIDE OROKORRAK

- a) Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa izango da.
- b) Diru-laguntza hori emateak ez du esan nahi udalak etorkizunean ere eman behar duenik, ez du aurrekaririk sortzen.
- c) Diru-laguntza hauek eskatu nahi dituzten Pasaiako arraun elkarteek 8. puntuan aipatzen diren hizkuntzari buruzko baldintzak bete behar dituzte.

### 4. ARTIKULUA.- ONURADUNAK:

Pasaia udalerrian arrauna sustatzeko programak garatzen dituzten Pasaiako arraun taldeak.

### 5. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA HORIEK AURKEZTEKO EPEAK

- Eskaerak egiteko, eskaera-orri ofiziala erabili behar da (1. eranskina), arrauna sustatzeko diru-laguntza eskatzeko dena; eta hori udaleko Gazteria eta Kirol Departamentuan dago eskuragarri.
- Eskaerak Pasaia Udaleko Gazteria eta Kirol Departamentuaren egoitzan aurkeztu behar dira (Euskadi etorbidea, 61, 20110 Pasaia), eta horiei agiri hauek erantsi behar zaizkie:
  - ✓ Eskaera-orria: 1. Eranskina.
  - ✓ Jardueran parte hartu dutenen zerrenda (izen-abizenak eta Nortasun Agiria edo nortasuna egiaztatzeko beste agiriren bat; eta matrikularen ordainagiria, halakorik badago).

- ✓ Ikastetxe edo elkarteetan egindako jardueri dagokienez, erakunde horiekin dagoen hitzarmena.
- ✓ Jarduerak egin direla egiaztatzen duten agiriak (publizitatea, hedabideetan argitaratutako berriak, ikus-entzuleak ageri diren argazkiak...).
- ✓ Jardueretako arduradunen titulazioak (jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua).
- ✓ Diru-laguntzaren zenbatekoa justifikatzen duten fakturak.
- ✓ Egindako jardueren memoria laburra.

## 6. ARTIKULUA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK

Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epeak Gazteria eta Kirol Departamentuak zehaztuko ditu bere garaian.

Eskaera-orrian edo horri erantsitako agirietan akatsik balego, edo osatu gabe baleude, elkartei hamabost eguneko epea emango zaie aurkitutako akatsak konpontzeko. Epea bukatu eta akatsak zuzenduko ez balituzte, beren eskaerari uko egin diotela joko da, eta prozedura artxibatuko da. Halaber, datuak ezkutatu edo aldatuz gero, elkarteak diru-laguntzak jasotzeko eskubidea galduko du.

## 7. ARTIKULUA.- PUNTUAZIO-SISTEMA:

Eskaerak Gazteria eta Kirol Departamentuan aztertu eta ebaluatuko dira.

Urtero diru-laguntza hauetarako onartzen den kontusaila honela zatituko da:

- 1. atala: 20.000 € (%57,14)
- 2. atala: 8.700 € (%24,86)
- 3. atala: 3.300 € (%9,43)
- 4. atala: 3.000 € (%8,57)

Hurrengo urteetan ere arrauna sustatzeko diru-laguntzarako kontusaila mantenduko balitz, eta aurrekontua aldatuko balitz; atal bakoitzari dagokion kopurua zehazteko, lehen adierazitako portzentajeak aplikatuko lirateke.

Atal bakoitzari dagokion diru-kopurua gastatuko ez balitz, beste ataletako kopuruak handituko lirateke, baina soilik behar bezala justifikatuz gero. Bestela, kopuru hori "Kirol erakundeentzako diru-laguntzak" kontusailera bideratuko litzateke.

2. atalean egindako jarduerak puntu-sistema honen arabera baloratuko dira:

1.- Jarduera bakoitzeko parte-hartzaile kopurua:

Parte-hartzaile bakoitzeko.....0,1 puntu

2.- Jardueren arduradunak:



- Zenbat lizentziadun Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian; eta zenbat Oinarrizko Heziketa Orokorreko irakasle, Heziketa Fisikoan espezializatuak.

Lizentziadun edo diplomadun bakoitzeko.....1,5 puntu

- Zenbat erdi-mailako zikloetako tituludun, ingurune naturaletan jarduera fisikoak zuzentzeko eta kirol-sustapenerako.

Erdi-mailako zikloetako tituludun bakoitzeko..1 puntu

- Zenbat pertsona erantzukizun teknikoa edo arautu gabeko prestakuntza dutenak (begiraleak, entrenatzaileak...).

Arduradun bakoitzeko.....0,5 puntu

### 3. - Jardueraren saio-kopurua:

- Saio bakoitzeko..... puntu 1 (eguna eta saioa baliokideak dira)

### 4.- Aurrekontu-maila:

- Aurrekontuko gastua 499 €-tik beherakoa bada ..... puntu 1
- Aurrekontuko gastua 500 eta 999 € bitartekoa bada ..... 2 puntu
- Aurrekontuko gastua 1.000 eta 1.999 € bitartekoa bada ..... 3 puntu
- Aurrekontuko gastua 2.000 eta 2.999 € bitartekoa bada ..... 4 puntu
- Aurrekontuko gastua 3000 €-tik gorakoa bada ..... 5 puntu

Puntu-kopurua izango da, 2. atalean aurkeztutako jarduera guztietan lortutako puntuen batura.

Puntuaren balio ekonomikoa lortzeko eragiketa hau egin behar da: 2. ataleko diru-laguntzetarako jarri den kopurua, zati lortutako puntu guztiak. Puntuaren balio ekonomikoa elkarte bakoitzak lortutako puntuekin biderkatuko da, eta horren emaitza izango da elkarte bakoitzari dagokion kopurua.

Ohiko jarduerak ez direnez; ahalik eta sustapen-jarduera gehien izan dadin, hasierako kalkulua saio-kopuruaren arabera faktore zuzentzailearekin biderkatuko da, eta horren emaitza izango da eskatzaile bakoitzak atal horretan lortu duen diru-laguntza.

### Faktore zuzentzailea, jardueraren saio kopuruaren arabera:

- 50 saio edo gehiago.....1
- 40-49 saio.....0,9

- 30-39 saio.....0,8
- 20-29 saio.....0,7
- 10-19 saio.....0,6
- 1-9 saio.....0,5

## 8. ARTIKULUA. HIZKUNTZA-BALDINTZAK

---

Azken urteetan Pasaiako Udala, hainbat erakunde eta elkarterekin batera, ahalegin handia egiten ari da euskararen normalizazioaren arloan. Horregatik, eta diru-laguntzen banaketa orain arte hartutako neurriekin bat etor dadin, elkarteek antolatzen dituzten programetan euskararen erabilera hiru ataletan arautu nahi da:

1. Ekintza publikoak, eta idatziak, iragarkiak, propaganda, publizitatea eta abar argitaratzea.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, nahitaez bete behar da *Pasaian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantzaren* 45. artikuluko 1. puntua. Beraz, diruz lagundutako jardueri buruzko iragarkiak, oharrak, propaganda, publizitatea eta gainerako idazkiak euskaraz edo euskaraz eta gazteleraz egon behar dira.

Ekitaldi publikoetan ahozko nahiz idatzizko komunikazioa euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, eta beti lehentasuna emango zaio euskarari.

2. Elkarteak antolatutako jarduerak:

Pasaiako Udalak ezarri du euskararen normalizazioan lehentasuna duten arlo eta adin-taldeak haurrak eta gazteak direla, eta baita beren inguruneak ere.

Pasaiako haur eta gazteen %99k euskal eredutan ikasten du; baina horiek eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko aukerarik ez badute, ez dute aukera izango eskolan ikasitakoa sendotzeko, eta askotan galdu ere egingo dute. Horregatik, oso garrantzitsua da arlo horietan eragitea, euskara normaltasunez ikasi eta erabil dezaten. Horrela bada, bai familia eta bai eskolaz kanpoko jarduerak oso eremu garrantzitsuak dira, eta horietan eragin beharra daukagu. Udala horretan ahalegintzen ari da, baina adin horietarako jarduerak antolatzen dituzten elkarteek ere konpromisoa hartu beharko lukete; eta hain zuzen ere helburu horrekin, baldintza hauek ezarri dira:

### 2.1. Haur eta gazteentzako jarduerak.

Udalak duela 12 urte Eskolatik Kalera egitasmoa abian jarri zuen, eta udalerriko elkarteekin hitzarmenak sinatu zituen, euren euskalduntze prozesuan laguntza eskaintzearen. Hurrengo urratsa emateko garaian, 2008ko ekainean, Oarsoaldeko lau udalerriek konpromiso hau hartu zuten: 8 eta 17 urte bitarteko haur eta gazteentzat antolatzen ziren jarduera guztiak euskaraz egitekoa.

Horregatik guztiagatik, baldintza hori betetzen ez duten elkarteek ez zaie diru-laguntzarik emango euskara erabiltzen ez duten jardueretarako.

### 2.1. Helduentzako jarduerak:



Adin-tarte horretan euskaldun kopurua txikiagoa den arren, taldeak osa daitezke; beraz, puntu honen helburua da ahalegin hori egiten duten elkarteak saritzea. Beraz, elkarteek euskaraz antolatzen dituzten jarduerak baloratu egingo dira, eta diru-laguntza handiagoa jasoko dute.

#### 9. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA:

---

Gazteria eta Kirol departamentuak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio Tokiko Gobernu Batzarrari, eta aurrez Gazteria eta Kirol Departamentuari ere jakinaraz diezaioke.

#### 10. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA:

---

Pasaiako Udalak egiaztatuko balu aurkeztutako agiriak ez direla egiazkoak; ahalmena izango du emandako diru-laguntza baliogabetzeko, edo, hala badagokio, erreklamatzeko.

Oinarri hauei buruzko zalantzak Gazteria eta Kirol Departamentuak konponduko ditu.